

OHARRA

Azken asteetan Mendialdea Mankomunitateko kamioiarekin arazo batzuk izan ditugu, ondorioz Iruñerriko Mankomunitateko kamioi baten laguntza behar izan dugu hondakinak jasotzeko.

Arazoa behin betiko konpontzeko lanean dihardugu. Konponbideetako bat dauzkagun kamioien funtzioak aldatzera izan daiteke. Froga modura hondakinak biltzeko modua aldatu dugu, aste honetatik hasi eta urte bukaera bitartean.

Urtea bukatu bitartean, Mendialdea Mankomunitateko kamioiak funtzio desberdinak izango dituzte.

- **Orain arte papera eta ontzi arinak** jasotzen zituen kamioiak, **urtea bukatu arte errefusa eta ontzi arinak** jasoko ditu.
- **Orain arte errefusa** jasotzen zuen kamioiak, **aurrerantzean papera eta kartoia** jasoko ditu **egun batzuetan eta besteetan errefusa** jasotzen jarraituko du.

Funtzionatzeko era honek emaitza onak ematen baditu, kamioiak dagokien koloreekin margotuko ditugu.

Eskerrik asko eta barkatu sor daitezken eragozpenak.